

EH Bildu Laudiok 2,4 milioi euroko ekarpenak egin dizkio hurrengo urteko aurrekontuari

la erdia pandemiaren ondorioei aurre egiteko proposamenak dira

Inbertsioen atalean, udal hiltegian egin beharreko konponketak eta bi parke estaltzeko proposamenak daude

Laudio. 2020-11-09. EH Bildu Laudiok 2,4 milioi euroko ekarpenak egin dizkio hurrengo urteko aurrekontuari. Horrela dago jasota gaur goizean erroldatu duen idazkian. la erdia pandemiaren ondorioei aurre egiteko proposamenak dira. Horien artean, adibidez, EH Bilduk planteatu du Laudioko ostalari, merkataria eta autonomoiei laguntzeko 800.000 euroko diru partida berri bat sortzea. *“Argi dugu gure osasuna lehenetsi behar dela, baina neurri murriztaileekin batera kaltetutako sektoreei laguntzeko neurriak ere planteatu behar dira eta horretara dator gure proposamena. Bestela, haiek aldarrikatu duten bezala, hondamendira joango dira”*, azaldu Santi Hernando Saezek. Diru-laguntza horiekin batera, EH Bilduk proposatu du enplegu programa gehiago martxan jartzeko 200.000 eurotan handitzea diru partida, eta merkataritza bultzatzeko bonoak egiteko beste 8.000 euro bideratzea.

Inbertsioen atalean, udal hiltegian egin beharreko hainbat obra burutzeko 370.000 euro, aurreikusi ditu alderdi subiranistak. Horrekin batera, bi parke estaltzeko 180.000 euroko aurrekontu partida bana sartu ditu. Lehenengoa, Latorroko haur parkea estaltzeko, eta bigarrena, suhiltzaileen ondoko nagusientzako parkea estaltzeko.

Berritasunen artean, EH Bilduk abian jarri nahi du ahalduz eskola eta emakumeen etxe baten sorrera ebaluatzeko prozesu bat. Bi urteko prozesua litzateke eta udalerriko eragile feministekin batera gauzatu beharrekoa. Horretarako, 18.150 euro gordetzea proposatu du koalizioak. Horrekin batera, jasotzen da 20.000 eurotan mantentzea indarkeria matxistari aurre egiteko diru partida, eta beste 10.000 euro gizonentzako berdintasun formakuntzarako bideratzea.

Guztira, 22 proposamen dira eta horien artean, herritarrek ia zuzen egindako batzuk ere biltzen dira. Horietako bat da, adibidez, skate pista berritzea edo Gardeako aisialdi gunetan hobekuntzak egitea. Aretako kultur etxea atontzea, kultura plan estrategiko bat egitea eta kirol instalazioetan hainbat konponketa eta hobekuntzak egitea ere planteatu da.

“Duela aste batzuk esan genuen bezala, Laudioaren mesedetan negoziatzeko eta akordio zabalak lortzeko erabateko prestutasuna dugu, betiere, gure herrian egiten ari diren politiketan aldaketak egiten badira, eta pertsonen, batez ere krisi soziosanitarioaren ondorioak gehien pairatzen ari direnen, bizi-kalitatea hobetuko duten politiketan eta proiektuetan eragiten badu. Horren harira datoz gure proposamenak”, azaldu du Santi Hernando Saezek.

EH Bildu Laudio hace aportaciones al presupuesto del próximo año de 2,4 millones de euros

Casi la mitad son propuestas para combatir los efectos de la pandemia

En el apartado de inversiones, se incluyen reparaciones a realizar en el matadero municipal y propuestas para cubrir dos parques

Laudio, 09-11-2020. EH Bildu Laudio hace aportaciones al presupuesto del próximo año de 2,4 millones de euros. Así consta en el escrito que ha registrado esta mañana. Casi la mitad son propuestas para combatir los efectos de la pandemia. Entre ellas, por ejemplo, EH Bildu ha planteado la creación de una nueva partida de 800.000 euros para ayudar al sector hostelero, comercial y autónomo de Laudio. *"Tenemos claro que hay que priorizar nuestra salud, pero junto a las medidas restrictivas también hay que plantear medidas de apoyo a los sectores afectados y a eso viene nuestra propuesta. Si no, tal y como el sector ha proclamado, se irán al desastre"*, explica Santi Hernando Sáez. Junto a estas ayudas, EH Bildu ha propuesto incrementar en 200.000 euros la partida destinada a la puesta en marcha de nuevos programas de empleo y destinar otros 8.000 euros a la prestación de bonos para impulsar el comercio.

En el apartado de inversiones, el partido soberanista ha previsto 370.000 euros para la ejecución de varias obras en el matadero municipal. Junto a ello, ha incluido sendas partidas presupuestarias de 180.000 euros para cubrir dos parques. La primera, para cubrir el parque infantil de Latorro, y la segunda, para cubrir el parque de las personas mayores situado frente a las y los bomberos.

Entre las novedades, EH Bildu quiere poner en marcha un proceso de diagnóstico y evaluación para crear una escuela de empoderamiento y una casa para las mujeres del pueblo. Se trataría de un proceso bianual y participativo que se debe llevar a cabo junto con el movimiento feminista, así como con los diferentes agentes y organizaciones feministas del municipio. Para ello, la coalición propone reservar 18.150 euros. Junto a ello, se recoge que se mantenga en 20.000 euros la partida para hacer frente a la violencia machista, y destinar otros 10.000 euros para formar a los hombres en igualdad.

En total, son 22 propuestas, entre las que se incluyen algunas realizadas por la propia ciudadanía desde el año pasado. Una de ellas es, por ejemplo, la renovación de la pista de skate o las mejoras en las zonas de ocio de Gardea. También se ha planteado habilitar la casa de cultura de Areta, elaborar un plan estratégico de cultura y realizar diversos arreglos y mejoras en las instalaciones deportivas.

"Como decíamos hace unas semanas, tenemos una disposición absoluta a negociar y a llegar a acuerdos amplios en beneficio de Laudio, siempre y cuando se produzcan cambios en las políticas que se están llevando a cabo en nuestro pueblo, y que incidan en políticas y proyectos que mejoren la calidad de vida de las personas, sobre todo de las que más están sufriendo las consecuencias de la crisis sociosanitaria. Nuestras propuestas persiguen esos objetivos.", explica Santi Hernando Sáez.